

MERKATU SEGMENTAZIOA

- **Zein da zure bezeroa?**

Gure bezeroak 16 eta 25 urte bitarteko gazteak izango dira. Hala ere, 16 urtetik gorako edozeinek erabil dezake aplikazioa, baina ez da beregan zuzenduta egongo.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Bezeroen adin-tartean, gauetan maiz ateratzen dira baina, askotan, arazoak dituzte non atera erabakitzeko. Ez dakite non egongo den haien farra-giro egokia, edo bere adin-tarteko jendea non egongo den. Denak izango dira Euskal Herrikoa, bertan baitago tabernaz-taberna irteteko ohitura handiena (Estatuko gainontzeko lurraldeetan, normalean, diskotekak eta dantzalekuak izaten dira irteteko leku ohikoenak). Horregatik, eta jakinda zenbat taberna dauden Euskal Herrian, irteteko lekuaren erabakia erraztu nahi diegu erabiltzaileei.